



LIBURUA

Amonak erranak



KATAKRAK ARGITALETXEA

AMONARENEAN KEA

ANA IBAÑEZ ELOSUA ETA
DANI MARTIRENA INDART

LIBURU ILETSUAK

XABIER ETXANIZ ERLE

gandea noiz iritsiko irrikaz izaten ginen, elkarrekin joateko amonaren etxera". Hitz horiekin hasten da narratzailea, neskato bat, ilobek amonarekin igandero izaten zuten enkontrua kontatzen, nola prestatzen zien amonak hostopila, nola hartzen zuen anis kopa.

"Oroitzen dut" izango da liburuaren lehen parte honetan esaldi gehienek hasiera. Eta oroitze horretan amona nolakoa zen, nola janzen zen, haren besarkadak... gogoratuko ditu narratzaileak, baina baita ere amonak nola kontatu zien gerran jazotakoa: "Oroitzen dut, amonak errana, karrketan jolasteko gogorik ez zegoela gerran. Oroitzen dut, amonak errana, gerran ez zegoela jaterik galletarik edo pastelik. Oroitzen (...) gerran hil zutela aitona (...) zeharo gautu zirela egunak 1936an".

Tonu simple eta goxo batean kontatzen zaigu amonarekin zuten harremana, eta tonu horretan ere azaltzen zaigu amona hil zela aitonaaren hezurak non dauden jakin gabe. Hots, *Amonarenean kea* liburua gerraren drama, galtzailearen drama, haurrei hurbiltzeko modu zuzen eta egokia dugu, tonu poetiko baretetik abiatuta, idazkerarekin bat egiten duten ilustrazio simple eta iradokitzaileen bidez, familia barruko aspaldiko historia kontatzen digun narrazioa. Alde horretatik liburu hunkigarria dugu; sinpletasunetik eta inozentziaren begietatik erakusten zaigulako amonaren goxotasuna eta amonak bere baitan urteetan gorde duen samina.

Amonarenean kea liburua, baina, bitxia da baita ere historia baten bi

narrazio ditugulako. Lehena aurretik komentatu duguna. Bigarrena haur helduagoentzat (eta helduentzat ere) narrazio moduan kontatua. Antoni Benaiges i Noguésen historia (edo hilketa, hobe esanda) kontatzen zaigu. Aurreko albumeko amonaren senarraren historia. Nola atxilotu zuten maisu izateagatik eta haurrak askatasunean hezi nahi izateagatik. Historia-hilketa gordina. Izan ere, liburuaren amaierako oharrean Dani Martirenak dioen moduan, "maiz izaten da errealitatea fikzioa bera baino gordinagoa".

Apustu ausarta egileena, eta liburu gomendagarria, literatura ikuspuntutik, baita memoriaren gaia haurrei hurbiltzen hasteko ere. ●